



LAGUNAK UDAL ZERBITZUAN OSPAKIZUNAK EGITEKO ARAUDIA **GONBIDAPENAK ESKATZEA**

(Zuzendaritza batzordeak 2009ko martxoaren 10eko bilkuran erabakia)

Lagunakeko abonatuak antolatzen dituzten ospakizun, bazkari eta afarietan abonatu ez direnek parte hartu ahal izateko araudia da hau, UDAKO DENBORALDITIK KANPOKO ARAUDIA, hain zuzen, udan gaueko 9etatik aurrera baino ez baitaitezke sartu abonatu ez direnak.

Gonbidapenak aurrez eskatu behar dira Lagunakeko sarrera nagusian, beharrezkoa den baimena eta eskatutako gonbidapenak eskuratu ahal izateko.

TOKIA: Lagunakeko jatetxea edo erretegiak.

OSPAKIZUNAREN ORDUTEGIA: instalazioak zabalik dauden bitartean.

URTE SASOIA: irailaren 15etik ekainaren 1a arte. Erretegiak apirilaren 15etik urriaren 15a bitartean erabili ahal izanen dira, udako denboraldian izan ezik. Izan ere, udaldian, igerilekuak zabalik dauden epean, abonatuak ez direnek udako sarrera ordaindu beharko dute, Lagunaken sartu ahal izateko. Udako denboraldian iluntzeko 9etatik aurrera eta urteko gainerako egunetan abonatu ez direnak inolako eragozpenik gabe sartu ahal izanen dira, baldin eta baimenik eskatu badute.

GONBIDAPENAK: Abonatuak ez diren gonbidatuak sartu ahal izatea errazteko, abonamendua duenak aurrez jaso beharko ditu lehendik eskatutako gonbidapenak sarrera nagusian, eta gonbidatuen izen-deiturak zein diren jakinarazi beharko du idatziz bertan.

Abonatu bakoitzak 10 lagun gonbidatu ahal izanen ditu gehienez ere. Abonatuak ez diren 30 gonbidatu baino gehiagoko ospakizunak Zuzendaritza batzordeak baimendu behar ditu, eta, horretarako, eskaerak zuzendaritzari garaiz helaraziko zaizkio.

Gonbidatuak taberna-jatetxean edo erretegietan bakarrik sar daitezke, eta ezin dituzte gainerako instalazioak erabili.

JATETXEAN EGITEKOAK DIREN OSPAKIZUNAK ZERBITZU HORI ERRENTAN HARTUA DUENAREKIN HITZARTU BEHAR DIRA LEHENAGO.

URTEBETETZEAK OSPATZEKO ARETOAK BERE ARAUDIA DU. Gonbidapenei dagokienez, berriz, arau hauen menpe dago areto hori ere.

ESKAERA ONARTZEAK EZ DAKAR BEREZ ERRETEGIAK ERABILTZEKO ERRESERBARIK.

ABONATUEK EDO HAIEN IZENEAN TABERNA ERRENTAN HARTUA DUENAK ANTOLATU AHAL IZANEN DITUZTE OSPAKIZUNAK; BETIERE, HORRETARAKO BAIMENA ESKATUTA.

OSPAKIZUNERA DATOZEN GUZTIEK ERABILTZEN DUTEN INSTALAZIOARI DAGOKION ARAUDIA BETE BEHARKO DUTE. ESKAERA EGIN DUEN ABONATUAK ERANTZUNGO DU, OSPAKIZUNERA ETORRITAKOEK KALTEREN BAT EGITEN BADUTE EDO JOKABIDE DESEGOKIREN BAT BADUTE.

HALABER, ESKAERA EGIN DUENA ARDURATUKO DA UMEEZ. UME HORIEK BETI HELDUREN BATEKIN EGONEN DIRA, GURE INSTALAZIOETAN DABILTZAN BITARTEAN. Lagunak eremu segurua da arauak zorrotz betez gero, baina badira bertan umeendako arriskuak.

ESKAERA EGITEN DUEN ABONATUAREN IZEN-DEITURAK

HARREMANETARAKO	TELEFONOA.....	ABONATUAREN	
ZENBAKIA.....			
OSPAKIZUNAREN			
DATA.....			
OSPAKIZUNA NON IZANEN DEN:	JATETXEAN.....	ERRETEGIETAN.....	
OSPAKIZUNAREN	ZERGATIA.....	ESKATUTAKO	GONBIDAPEN
KOPURUA.....			

Abonatuak ez direnen sarreraren gaineko arauak onartzen ditut, eta baita Lagunak Udal Zerbitzuaren instalazioak erabiltzeko arau orokorrak ere.

ABONATUAREN SINADURA

Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera, jakinarazi nahi dizugu datu pertsonal hauek fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula zurekiko komunikazioa eta lan administratiboak errazteko: txartela, ordainagiriak, estatistikak, aldizkaria eta zure intereseko bestelako informazioa zuri helaraztea eta Lagunakeko sarrerak egoki zaintzea. Eskatutako datu guztiak beharrezkoak dira horretarako. Hala nahi izanez gero, fitxategi horretan sartzeko, datuak zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzu, honako helbide honetara idatzita: LAGUNAK UDAL ZERBITZUA, Barañaingo ingurabidea z.g., 31010 Barañain (Nafarroa).